

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 197. alea - 2015eko ekaina

A photograph of Pedro Bengoetxea, a man with a beard and mustache, wearing a blue and white striped polo shirt. He is standing in a room with dark wood paneling and a coat of arms on the wall. He is holding a yellow cord. The room features a wooden chair with a brown leather backrest and a flag on a pole in the background.

**Pedro Bengoetxea,
herriko alkate berria**



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletelne.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 31
Tlfnoa: 943 19 27 29



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi



Pintxoak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 022 468 - 616 544 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Bordatxo
JATETXEA

Berezitasuna Parrilan:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afariak: 20:00 / 23:00



Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkartea
Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:
Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Debako Gazte Asanblada, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:
Izaro Aulestiarte
Azaleko irudia:
Erredakzio taldea
Publizitatea:
Joseba Escudero eta Koldo Aperribai
Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua
Maketazioa:
Leire Rubio
Inprimategia:
Euskalinpri
Tirada:
1.400 ale
Lege gordailua:
SS-246-2009
ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



aurkibidea

05-06

KOLABORAZIOAK

Gilen Garcia ("Go on Falls Road Taxis!") eta Debako Gazte Asanblada

07

KRONIKA

XXIX. Antzerki Astearen kronika egin du Goaz Antzerki Taldeak



08-10

ALBISTEA

Hauteskundeen emaitzak, alderdien balorazioak, udal ordezkarien kargu-hartzea...



11-14

B. GAZTEA

San Juan festa, elkarrizketa Landon Cotham irakasle laguntzaileari, denbora-pasak...



15

KRONIKA

"Idazketa sortzailea, Nitik Gura" tailerra; Yolanda Arrieta Ostolaza Udal Liburutegian



18

ZERBITZUAK



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Badatoz Kolorez Blai Udalekuak! "Morea, lore dotorea, izango da zure kolorea!"

Hemen gatoz hirugarren urtez Debako kaleak koloreztatera! Udalekuetako izen-ematea amaitu da dagoeneko eta ezin kexa gaitezke. Epe barruan izena eman duten haur guztiak izan dira onartuak eta koadrila polita osatuko dugu uztailean zehar kantukantari eta jolasean aritzeko, gutira 200dik gora haur murgilduko baitira euskal udalekuetan. Itziarren ere talde txoa handitzen doa gainera eta oso pozik gaude!

Iruñeko zapi gorriarekin batera, uztailaren 6an emango diegu hasiera Kolorez Blai udalekuei. Eta pena handiz Gamarran agurtuko dugu elkar, uztailaren 30ean egun osoa elkarrekin igerilekuan eta txirristetan gora eta behera pasa ostean!

Eskerrak eman nahi dizkizuegu izena eman duzuen guztioi eta proiektu honen atzean gurekin lanean aritzen zaren

ten guztioi. Dagoeneko hasiak gara lanean eta espero dugu aurten goa ere iazkoa bezain koloretsua izatea!

Gogoratu, bide batez, udalekuetan parte hartuko duten haurren gurasoekin bilerak egingo ditugula ekainaren 26an (ostirala). Arratsaldeko 17:30ean Itziarko apaiz etxean egingo da lehenbiziko bilera, eta arratsaldeko 19:00etan Debako udaletxeko pleno aretoan burutuko da bigarren batzarra. Udalekuen nondik norakoak izango ditugu hizpide; elkar ezagutu eta edozein zalantza argitzeko aukera ere izango da batzarretan. Bertan elkar ikusiko dugulakoan, laster

arte eta ondo izan!!!

Informazio gehiagorako: 943 19 13 83 telefono zenbakia edo koloreanitz@gmail.com posta elektronikoa.

Kolore Aitz Aisialdi Taldea



Udara kulturaz blai, euskaraz blai, haur eta gazte hurbildu alai!

Etorri zaigu uda eta haurrak opor usainean dabilta! Urtero bezala, garai honetan Zuhatza Euskara Elkartek bere ekarpena egin nahi du etxeko txikiek euskaraz jolastu eta gozatzeko aukera eta eskaintza zabalagoa izan dezaten. Hori dela eta, uztailean Kolorez Blai udalekuak burutuko dira, eta agenda biribiltzeko haurrentzako beste bi ekimen antolatu ditu elkartek.

"Hodei Magoa eta Tiritatxo" ikuskizunarekin magiaren mundura hurbiltzeko aukera izango dugu lehenengo hitzorduan. Uztailaren 7an (asteartea) izango da, arratsaldeko 19:00etan, zumardian. Hurrengo hitzordua, berriz, Kolore Aitz Aisialdi Taldeak gidatuko du eta **haurrentzako jolas ezberdinak** antolatuko ditu egun horretarako. Uztailaren 14an (asteartea) izango da, zumardiko kioskoaren inguruetan. Gorde aipatutako bi astearte horiek agendan! Aurreko urteetan egin den bezala, data horietan eguraldi kaskarra egingo balu, ekimenak

Luzaroko frontoi txikian burutuko lirategia.

Bestetik, ikasturtea amaitzen doan heinean, Zuhatza hasita dago datorren Euskal Jairako antolaketa lanetan ere. Arlo horretan, lehen urratsa iraileko festa hori iragartzeko **kartel lehiaketa** abian jartzea izan da. Ekainaren 30ean bukatuko da lanak aurkezteko epea. Oraindik garai zabilzate, beraz! Animatu eta parte hartu lehiaketan! Hilabete honetan jasotako lanak uztailaren 10ean (ostirala) jarriko dira ikusgai plaza zaharretan, eta herritarrok bozka bidez hautatu ahal izango duzue hurrengo Euskal Jairako kartel ederreana. Zuen zain egongo gara bozketa egunean ere!

Jarrai dezagun, elkarrekin, herrian euskara eta euskal kultura sustatzen. Euskara erabiliz,

euskaraz bizi!

Zuhatza Euskara Elkartea





GILEN GARCIA

GO ON FALLS ROAD TAXIS!

Aldizkari honen azkenengo alean James Connolly Brigada Internazionalistaren sinadurapeko artikulua irakurri nuen, kasualidadez nere kolaborazioa irten baino hilabete lehenago, aurreko alean! Badira ia bi urte Belfastera etorri nintzenetik eta bertako errealitateari buruzko balantze txiki bat egitea zen nere asmoa, baina nere lagunek ideia aldatzera behartu naute.

Gaurko honetan Irlandan lan munduan bizi izan ditudan esperientzietatik abiatuko naiz... Nire lehendabiziko lanbidea Debako jaiak ziala lortu nuen (oraindik ez zan Gora Deba (M) plataforma pandebarra existitzen, eta bere beso politikoa ere ez), abuztuaren 14an hain zuzen, eta kontzertu gune erraldoi bat garbitzea izan zan; 12 orduz egunean. Gabonetan Euskal Herrira bueltan joan edo bertan geratu aritu nintzan pentsatzen baina azkenian bigarren aukera gailendu zen eta horri esker nere bigarren lanpostua lortu nuen. Oraingo honetan askoz ere baldintza hobetan, etxetik minutu batera dagoen taberna batean baitzen, eta gainera ni maiztasunez joaten naizen Red Devil tabernako langile batek gomendaturik hartu ninduten. 6 libra kobratzen nituen orduko eta ordu luzez aritzen nintzen bertan, asteburuetan batez ere, horixe da lan merkatuaren errealitatea egun nere inguruan. Gazte gehienek kontraturik ez edota zero orduko kontratuak dituzte, kontraturik daudenek minimoa kobratzen dute eta 21 urtez azpikoak badia, oindikan pixka bat gutxio. Esan beharra dago lana egon badagoela baina baldintza eskasetan eta epe ertain eta luzerako perspektiba batekin begiratu ezker ez da batere erakargarria. Nola nahi dute gazteen emantzipazioa, gazteekiko politika ustel horiek bideratzen badituzte? Egoera larriagotu egiten da gazte horiek emakume edota immigrante badira.

Izandako lanpostu horiez gain, heldu nintzenetik Coiste preso errepublikar ohien elkartearekin aritu naiz

elkarlanean eta bertan antolaturik duten tour politikoen proiektuan aktiboki kolaboratu det. Hala ere, gaur egun taxista naiz Belfasteko mendebaldean autobus zerbitzua ematen duen West Belfast Taxi Associationean.

1969ko udan tentsio eta biolentziaren gorakadak Belfasteko auzo katolikoan getizazioa areagotu zuen, mendebaldekoa ghetto handiena zelarik. Garraio publikoari dagokionez, auzo katolikoetan lineak edozein "mehatxu" zela eta geldiarazten ziren eta bestela istiluak zeuden bakoitzean autobusak barrikadak egiteko erabiltzen ziren.

Hortaz, mendebaldeko herritarrek euren garraio publiko sistema antolatzeari ekin zioten. Lehendabizi,

auzokide batzuk taxi-bus zerbitzu moduko bat ematen hasi ziren, ez zen 1972 arte izan

Falls Taxi Association sortu eta zerbitzua egonkortu zela. Zentrutik mende-

baldera eta iparraldeko auzo batera, eta alderantziz, da eskaintzen dan

zerbitzua, gidariaz gain 6 bidaiari sartzen dira kotxean eta ez du

aurreikusitako geralekurik. Giro ederra sortzen da batzuetan...

"Herriaren taxiak" bezela ere ezagutzen dira, izan ere, komunitate

komunitatearentzako diseinaturiko garraio sistema da, prezioari dagokionez

berdin da kilometro bakarra edo 10 km egitea, £1,30 ordainduko dugu, urrutien doazen

rutek £1,70 balio dute. Guztira zortzi ruta daude

mendebaldean eta bakarra iparraldean eta goizeko 7etatik gaueko 11etara ematen da zerbitzua.

Taxista elkarte honek komunitateari ematen dion garraio zerbitzuaz gain, eragin handia du beste bi esparrutan. Batetik 300 lanpostu inguru eskeintzen ditu, eta bestetik horiek eskuratzeko orduan preso ohiekiko diskriminazio positiboa egiten dute hauen baldintzak kaskarragoak izaten diren heinean. Eskuzabalik hartu ninduten eta harrotasunez esan dezaket: I'm a Falls taxi man!





Guztion lanaz, guztion etxea: auzolanaz, Gaztetxea

Aurtengo udan Gaztetxean eraberritze proiektua abian jarriko dugu. Kanpoalde zein barnealdea margotu, leihoak konpondu, argiztapen egokia ezarri... Hau da, gune hau denontzako erakargarria eta gustukoa bihurtzea, aldi berean, elkarlanaren bitartez, gazteon arteko harremanak sustatzen ditugularik. Ez da beharrezkoa izango obra lanetan esperientzia izatea, ezta aditu izatea ere laguntzera etortzeko, lanerako gogoa eta irribarre bat da eskatzen dugun gauza bakarra.

Debako Gazte Asanblada duela 10 bat urte sartu zen Mataderoan, hilabete gutxitan eraikin hau eraberritu eta Gaztetxe bihurtuz. Ordutik hona, herrian gune erreferentea bilakatu da, aisialdi eredu alternatibo bat eskainiz eta herriaren gabeziak betez. Gaztetxean bertan arlo ezberdinak jorratu dituzten hainbat talde sortu dira: Debarock Kolektiboa, musika talde ezberdinak, Akerzulo espeleologia kirol elkarte, Jai Herrikoien Aldeko Kolektiboa, Errima

Frustratuen Kluba bertso taldea, Gaztekirol F.T., D.G.A. Hools, "Kaletik" aldizkaria...

Azken urteetan eraikinaren egoerak okerrera egin du: teilatuetan zuloak eta itokinak, argiztapenarekin arazoak, hezetasuna, kolorea galtzea... Honek guztiak asanbladaren funtzionamendua baldintzatzen du, eta ezinbestekoa ikusten dugu eraikina berriz ere egokitzea.

Udaletxeak teilatua berritzen lagundu digu, baina orain gure ardura da Gaztetxea kanpotik eta barrutik eraberritzea. Horretarako, laguntzeko prest dagoen pertsona orori dei egiten diogu proiektu honetan parte hartzeko eta auzolanean Gaztetxe berria eraikitzeko. Egoeraren berri emateko, panel informatibo bat jarriko dugu plaza berrian; bertan egutegia egongo da eta obraren bilakaeraz informatuko da.

Auzolanean Gaztetxe berria eraikiko dugu!!! Animatu eta parte hartu!!



UDA IKASTAROA

IRAUPENA: 80 ORDU

**EKAINAREN 29tik UZTAILAREN 24ra (3 ordu egunean)
IRAILAREN 7tik 18ra (2 ordu egunean)**

PREZIOA: 123 €

Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 77€

Bekatzeko sistema

MATRIKULALDIA: Ekainaren 25era arte

DEBABA UDAL EUSKALTEGIA

Ifar kalea 12

20820 DEBA

Telefonoa: 943192236

e-posta: udaleuskaltegia.deba@debabe.eus

Ondo joan da XXIX. ANTZERKI ASTEA; mila esker!



Aurtengo Antzerki Astea horrelaxe joan zaigu: **Maiatzaren 22an eta 24an, kale antzerkiak:** Bi kale antzerki izan ditugu.

Trapu Zaharrak Taldeak "Konga" kale antzerkia plaza-ratu zuen Arakistain plazan. Polita eta alaia; jendearen arreta bereganatu eta gozamina sortu zuen. Ikusle asko hurbildu zen eta jendearen barreak izkina guztietatik entzuten ziren, ikuskizuna adi-adi jarraitzen zuten seinale.

"Tenderete" lanarekin etorri zen Gasteizko Bapatean Zirkoa Taldea. Herriko plazan hasi ziren muntaia egiten, baina goitik negar malkoak jaisten hasi eta aterki bila joan ziren Aldats pilotalekura. Botoa eman behar ez zuten, herriko txikiak gure ikuskizunean parte hartzera pozik etorri ziren, nagusi batzuk lagun zituztela. Igande eguerdia pasatzeko aukera izugarria.

Maiatzaren 26an eta 28an, haurrentzako emanaldiak: Beste bi emanaldi izan ditugu sail honetan.

Maiatzaren 26an, astearte, Goaz Aretoan Aizarnako Eskolak "Gaueko Soinuak" eskaini zuen. Adin desberdineko jendeak osatutako taldea da, eta Luzaro ikastetxeko 3. eta 4. mailakoentzat prestatutakoa txukun eta euskara garbian eskaini zuten, hemengoei euren trebetasunak erakutsiz. Emanaldi hau ohikoa bihurtu zaigu Antzerki Asteko egitarauan. Beti ekartzen digute sorpresatzen bat; pozik etortzen dira eta guk beso zabalik hartzen ditugu.

Aste horretako ostegunean, bestetik, umez bete zen Aldats pilotalekua: Korri eta Xalto pailazoek "Esketx Merkeena" ikuskizunarekin denak dantzan jarri zituzten eta bukaeran pailazoengana hurbildu ziren musuak eman eta argazkiak ateratzera.

Maiatzaren 29an, 30ean eta 31n Antzerki Profesional eta Amateurren txanda:

Ostiral gauez, Lezoko Orratx taldea "Hariak" antzezlana-rekin hurbildu zen gure herrira. Emanaldi atsegina eta ondo prestatua,

gaur egun puri-purian dagoen bakardadearen gaia jorratuz. Dida batean pasa zitzaigun denbora. Jende dezente etorri zen eta etorritako guztiek txalo zaparrada batekin eskertu zieten ohol-tza gainean egindako lana.

Larunbatean goiz hasi ziren gauerako prestaketa lanak. Goizeko hamarretarako etorri ziren Txalo Taldeko argi-teknikariak eta muntaia arduradunak. Iluntzean, ardotxo batzuk hartuz, hizketarako gai bakarra zegoen: Kopako finala, Athletic Bartzelonaren kontra. Guk espero genuena baino jende gutxiago hurbildu zen Txalo Taldeak eskaini zigun "100m2" antzezlana ikustera. Lanak merezi zuen eta gustura egon ginen, askotan izan baitugu talde hori Antzerki Astearen gure artean izateko ohorea.

Azken eguna, maiatzaren 31koa. Egun ederra esnatu zitzaigun. Zeru urdin eta eguzkia bazter guztiak berotzen. Durangoko Karrika Taldea ez zen hondartzara etorri, pilotalekura baizik, "Ingunane Sustraiak Airean" ikuskizuna eskaintzera. Emanaldi osoan erabilitako musika eta erritmoak etorkinen gorabeheretan murgildu gintuzten denak. Ordubete pasatxo iraun zuen emanaldiak. Benetan dotorea.

Omenaldi berezia:

Maiatzaren 23an, Agirre jauregiko ispiluen gelan "Elorriko Lorea" eta "Euskara" olerkiak ardatz hartuta ikuskizun dotorea prestatu zuen GOAZ Antzerki Taldeak. Ikuskizun honetan, *Goaz kide* eta Goaz Antzerki Taldearekin harremana izan duten hainbat lagunek hartu dute parte. Bukaeran GOAZ-en azkeneko hamarkadan bultzatzaile izan diren pertsonen iritziak eta garai desberdinetako istoriotxoak kontatu zizkiguten, ikusgai izan genuen "Oroitzapenak" izenburuko bideoan.

Horrela bada, aurtengo XXIX. Antzerki Astea ondo joan da. Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, Debako Udalarri eta emanaldiak ikustera etorri zareten guztioi. MILA ESKER.

XXX. Antzerki Astea ere ate-joka dugu dagoeneko.

GOAZ Antzerki Taldea



Ekainaren 13an hartu zuten kargua udal ordezkariak

Pedro Bengoetxea buru duen Debarren Ahotsa plataformarena izan da maiatzeko udal eta foru hauteskundee-tan bozka gehien lortu dituen zerrenda. Hautesle talde-arentzat lehenengo udal hauteskundeak izan dira eta, 1259 lagunen babesa jasota, indarrez sartu da udaletxe-an. Bost zinegotzi izango ditu datorren legegaldian, lehen indarra izanik. Alkatetza ere berea, hortaz.

132 botoren aldearekin, EH Bildu izan da bigar-ren indarra eta beste bost ordezkari izango ditu Udalean. EAJren kasuan, bestetik, hiru zinegotzirekin jarraituko du aurrerantzean ere (667 bozka lortuta).

2015-2019 agintaldian Debako udalbatza osatu-ko duten zinegotziak aipatutako hiru talde politiko horien ordezkari izango dira.

Ohi legez, zinegotziek hauteskunde egunetik hogeit egunera, ekainaren 13an alegia, hartu zuten kargua. Eta, hurrengo pausoa alkatea aukeratzea izan zen. Egun berean, beraz, zinegotzi kargu hartu berriek boz-keta bidez hautatu zuten alkatea. Mainer Zubikaraien aldeko bozkek bost izan ziren, eta gainontzeko zortziak Pedro Bengoetxeak (Debarren Ahotsa) lortu zituen. Pedro izango da Debako alkatea hurrengo legegaldian.



Pedro Bengoetxea. DA



Aitor Salegi. DA



Ane Miren Egidazu. DA



Marilu Albizu. DA



Iñaki Esnaola. DA



Mainer Zubikarai. EHB



Aimar Lasa. EHB



Itziar Irizar. EHB



Jose Luis Albizu. EHB



Eli Urteaga. EHB



Cristobal del Corte. EAJ




Unai Lekube. EAJ



Iñigo Cambronero. EAJ

UDAL HAUTESKUNDEAK 2015 DEBA



Errolda: **4.311** Boto-emaileak: **3.217**
 Abstentzioa: %25,38 Baliogabeak: 28

Hautagai zerrendak	Botoak	%	Zinegotziak
Debarren Ahotsa	1.259	39,47	5
EH Bildu	1.127	35,34	5
EAJ-PNV	667	20,91	3
PSE-EE	43	1,34	0
PP	20	0,62	0
Zuriak	73	2,28	

Batzar Nagusiak

Boto-emaileak: **3.169**
 Abstentzioa: %26,21; Baliogabeak: 32

Hautagai zerrendak	Botoak	%
EAJ-PNV	1.280	40,80
EH Bildu	1.160	36,97
Podemos	292	9,30
PSE-EE	184	5,86
PP	83	2,64
IRABAZI	76	2,42
Zuriak	62	1,97



Udal hauteskundeetan lortutako emaitzak oso onak izan dira gure taldearentzat, besteak beste, legealdi honetan herriaren alde lan egiteko aukera ematen baitigute. Gainera, nabarmentzekoa da, azkeneko urteekin alderatuz, hauteskunde hauetan gure herrian izandako parte-hartze altua, %74,62, Erkidegoko altuenetariko bat.

Guretzat oso sorpresa atsegina izan da. Itxaropena bagenuen, baina EH Bildu eta PNV gurekin lehian izanda irabaztea oso zaila iruditzen zitzaigun.

Bestalde, Debako herri-gunean eta auzoetan lortutako emaitzak ikusita, gure erronketako bat bi errealitate hauen arteko harremanak normalizatzea izango da.

Nahiz eta ardura handia izan, udaletxea kudeatzeko osatu dugun taldearengan konfiantza osoa daukagu.

Debarren Ahotsetik guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu eta jakinarazi nahi dizuegu herriarengatik gogor arituko garela lanean.



Pasa den maiatzaren 24an ospatutako udal eta foru hauteskundeek gobernu arduetatik kanpo utzi dute Ehbildu Debako Udalean zein Gipuzkoako Foru Aldundian. Deban 1127 bozka jaso ditugu eta, bozka kopuru handia den arren, ez dugu lortu hauteskunde hauetarako gure helburua zena, hauteskundeetan lehen indarra izatea.

Debarren Ahotsa izan da hauteskunde hauetan irabazle eta EAJk aurreko legealdian izan dituen hiru zinegotziak mantentzea lortu du. Bi talde hauen funtsa, kanpaina aurrean zein hauteskunde kanpainan, Ehbilduk hartutako erabakien aurka egotea izan da. Beraz, Ehbilduren aurkako fronteak gobernatuko du Deba datozen lau urteotan.

Ehbildun uste dugu Debako udal gobernuak azken lau urteetan hartu dituen erabakiak zuzenak direla eta oinarri sendoak dituztela. Hondakinen bilketarako sistemak eta Itziarko Auzo Udalaren sorrerak batez ere herrian sortu duen giroak eragin zuzena izan du hauteskunde emaitzetan eta gure aurkako bozkaren aktibazioan. Bi prozesu hauen amaierak gal-

deketen emaitzetan oinarritu badira ere, herritar askok du Ehbilduk inposaketa bidez gobernatu izanaren sentsazioa, eta hau sakon aztertu beharrean gaude. Aurrera begira, aldaketak herritarrekin batera ematen asmatu behar dugu.

Hurrengo lau urteetarako oinarri sendoa eraikitzea lortu dugu hala ere, herritar askoren babesa izan duena. Bost zinegotzi izango ditugu Debako udalean eta honek urte hauetan martxan jarritako hainbat proiekturi bultzada ematen eta berriak proposatzen jarraitzeko aukera emango digu. Herritarren parte-hartze eta erabakitze eskubideari dagokionez jarritako oinarriek, herri galdeketa adibide, Debako udalean lekua izan dezaten lanean jarraituko dugu.

Bestalde, Ehbildu sendoa antolatu eta eraikitzeko garaian gaude. Arloz arlo, Deba berritzen jarraitzeko lan egin nahi duten herritarren sarea osatuko dugu udazkenean. Berandu baino lehen, Debak erabakitze eskubidearen aldeko eta justizia sozialaren aldeko udala izan dezan berritza ere.

Urrundik gatz eta urrunera goaz.



Azkenengo legealdia herritarren beharren aurka eramandako gobernu batek markatu du. Nahiz eta parte-hartze eta transparentzi ereduen musika behin eta berriz entzun izan dugun udaletik, herritarren gehiengoak garrantzizkotzat hartu dituen gai nagusietan, praktikan, udalak herritarren iritziei entzungor eta beraiek ordezkatzan dituzten siglentzat bakarrik gobernatzea erabaki zuen, herriaren osotasunaren beharrak kontuan izan gabe. Hori dela eta, Debako EAJtik benetako gobernu zuzen eta eraginkor baterako alternatiba izateko aurkeztu ginen. Herritarrek, ordea, aldaketa hau Debarren Ahotsa herri plataformak lideratzea erabaki zuten pasa den maiatzaren 24an, argi eta garbi.

Debako EAJtik, azkenengo udal hauteskundeetan beraien babesa eman diguten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Konfiantza honen ondorioz, hasi berria den legealdiari udalaren egonkortasunarentzat giltzarri izango diren 3 zinegotzirekin aurre egiteko aukera izango dugu. Debako EAJ Udal Taldea osatzen dugunok, Deba bizitzeko

herri hobeago bat eta gure herritarren arazo eta beharrei adostutako irtenbide eta proposamenak lantzeko etengabe lan egingo dugu. Cristobal del Corte, Unai Lekube eta Iñigo Cambronerok zinegotzietan gain, Debako EAJ osatzen dugun pertsona guztiek beraien botoa eman diguten herritarrei ez diegu hutsik egingo, eta babesa eman ez diguten gainontzekoei, lantalde langilea garela eta Deba herriarekin konprometitu gaudela erakusteko aukera eskatzen diegu.

Debaren hazkunde eta etorkizunerako funtsezkoak diren 4 urte ditugu aurretik. Alkate eta udal berriak, benetako herritarren parte-hartzea, enplegua eta herri ekonomia sustatzea, beharrak dituzten herritar guztiei erantzuneko dien gizarte ekintza, gazte, langabetu eta egoera zailean daudenei aukerak eman, gure kultura eta herria gure inguru eta lurralde mugetatik haratago proiektatu, eta azken finean, Deba bizitzeko toki hobeago bat eta gure herria merezi duen lekuan jartzeko lan egiteko prest izanez gero, Debako EAJ alboan izango du.

Itziarko Auzo Udalerako Zigor Aizpurua izendatu dute auzo-alkate

Udal eta foru hauteskundeetarako hautestontzien alboan, maiatzaren 24an hirugarren hautestontzi bat ere jarri zuten Itziarko mahaiari, auzo-alkatea izendatzeko helburuarekin.

Itziarko barrutiko 815 lagun zeuden bozka ematera deituta, eta %72ko parte-hartzearekin erantzun zitzaion deialdiari; guztira 585 herritarrek eman zuten bozka, eta horietako 519k babestu zuten Zigor Aizpurua (Denon Herria) auzo-alkatezarako. Hautagaitza bakarra izan zen Denon Herria ekimena.

Hauteskundeak ospatu bitartean auzo udalean lanean aritu den behin-behineko batzorde kudeatzaileari lekukoa hartu beharko dio orain osatuko den organo exekutibo berriak. Zigor Aizpurua auzo-alkateak eta lau kidek osatutako batzordearen ondoan lan talde oso bat izendatuko da.

Hona hemen hauteskunderen emaitzen harira eta auzo udalaren bueltan Denon Herriak bideratutako idatzia:

Itziarko hauteskunde barrutia, auzo udal hautestontzia:

Errolda: **815** Boto-emaitzak: **585**
Hautagaiaren aldeko bozka: 519
Bozka zuriak: 48 Baliogabeak: 18



DENON HERRIA

Auzo Udalaren eraketaren ondorioz, ohiko udal eta foru bozkaren ondoan hirugarren urna izan da albiste joan den maiatzaren 24ko hitzorduan Itziarko hautes barrutian. Bertan, auzo alkatea izendatzera ginen deituak erroldaren arabera 815 herritar.

Behin-behineko batzordeak kudeatu du orain arte Auzo Udala, otsailaren 27an kargu hartu zuenetik. Aurrerantzean auzo alkatea eta lau juntakidek osatuko dute organo exekutibo berria. Auzo auzo jorratutako parte-hartze zabalaren bitartez adostu dira kideok, berezko errepresentazioz ordezkariak horiek zegozkien alderdiek ere alde aurretik onetsitako ildoan. Era berean, auzotar desberdinez egituratutako talde eragile zabala osatu da. Izan ere, Auzo Udal marko administratioboaren gainean, auzolan eta batzar bidezko funtzionamendua garatu nahi da, parte-hartzea eta horizontaltasuna lehenetsiz, "gobernantza" printzipioa aintzat hartuta.

Oinarri sendoen gainean ahalbidetu da hautagaitza bakar eta zibila. Beharrezko tramiteak errazteko, hautesle talde gisa inskribatu zen Denon Herria ekimena, orain arteko prozesuarekiko konpromisoarekin bat.

Emaitzak begibistakoak dira, ikusi nahi dituenarentzat. 2014ko maiatza eta azaroan burututako kontsulten portzentaiarekin bat, auzo desberdinetako herritarrek berretsi egin

dute Itziarko Auzo Udalarekiko babes tinkoa. Traba burokratiakoak eta eskema arrotzak eragindako konplikazioak talde ilusioz eta herritarren parte-hartze zabalaz gainditu dira.

Bere horretan mamituz doa Itziarko Auzo Udala, administrazioz zein baliabidez. Gutxieneko azpiegiturak moldatuta, antolakuntza ahalmenak emango dio dagokion neurria. Hala ere, denbora eta begirunea beharko ditu normaltasunez aurrera egiteko. Bizikidetzeta eta elkarrekiko errespetua dira Auzo Udalaren balioak, metatutako ziliborkeria eta ulertu ezinak atzean laga eta hainbeste kostata garatutako bidearen ondorio.

Iruditzen zaigu areriotasun politikorako tresna gisa baliatu dela Auzo Udal proposamena gehiegi, guztion onerako irtenbidea distorsionatuz. Ondorioz, jendarteak ez ditu behar bezala barneratu ereduaren izaera eta balioak, garrantzi sozialaren gainetik ezarritako ñabardura sinbolikoak, eta benetakoa ez den galera eta lurraldetasun autodefentsa batera desbideratuz eztabaida.

Erakunde publikoen erantzukizuna da gizarte pedagogia bultzatzea, interes orokorrak alderdikerien gainetik kokatuz. Nahasmen eta tentsioak alboratuz Auzo Udalak behar luke izan aurrerantzean guztion zoru etikoa.



**JOSE A. GALDONA
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



English Academy

**NORTH
STREET
ENGLISH**

Tel. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba



BERRIKETAN GAZTEA

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.
2015eko ekaina

Antzinako jatorria duen jai garrantzitsua da. Ekainaren 24an ospatzen da, bereziki Europan. Hala ere, udako benetako solstizioa, urte osoko egunik luzeena, ekainaren 21a edo 22a izaten da. Jatorri paganoa duen antzina-antzinako tradizioa da; Erdi Arozaz geroztik, San Joan Bataiatzailea kristau santuaren izena darama.

Donibane jaiko ekitaldirik eza-gunena Donibane sua da, hainbat aldaerarekin, Donibane eguneko bezperako gauean piztu ohi dena, baina bestelako erritu eta ohiturak ere biltzen ditu. Euskal Herrian, esaterako, egun horretan iturri, putzu eta erreka batzuetako

urez garbitzea, haietako ura edatea nahiz Donibane eguneko goizeko ihintza zapaltzea osasungarria dela sinetsi izan da. Ohikoa da, halaber, etxeko atarian lizarraren, erramuaren eta elorri zuriaren adarrak jartzea, tximistetatik babesteko.

Donibane jaietan ospatzen diren su eta landare errituek antzinatek Europako hainbat tokitan –bereziki zelta tradizioa duten herrialdeetan– egiten diren ospakizunetan dute jatorria. Irlandako kasuan, adibidez, maiatzaren 1ean Bealtaine suak pizteko ohitura dute. Egun berean Europan egiten den Walpurgis gaueko ospakizunetan ere sua pizteko ohitura dute. Jai horiek paganoak dira, eta antzinaroan dute jatorria.

Jakina denez, Euskal Herriko herri gehienetan ospatu ohi da San Juan eguna –Deban ere bezperan bildu ohi gara suaren bueltan, plazan–.

Horrez gain, sanjuanak herriko jai nagusiak dira hainbat herri eta auzotan, hala nola Agurainen, Barakaldon, Arrasaten, Eibarren, Arbizun edo Donibane Lohitzunen.

Donibane jaia edo San Juan festa



EGILEAK: Naia Agirregabiria eta Paola Iñurieta



ELKA RRIZ KETA



Landon Cotham:

**“Zuei bisita egitera
eta tortilla jatera
itzuliko naiz”**

Bigarren ikasturtea egin du gurekin Landon Cothamek. Texasekoa da, baina Donostian egon da bizitzeko azkenaldian eta gure institutuan aritu da ingeleseko klaseetan irakasle laguntzaile bezala. Gaztelania ikasteko asmoz iritsi zen hona eta gaur egun oso ondo moldatzen da. Euskaraz ere ikasi ditu hitz batzuk. Musikaria, jatorra, atsegina eta nahiko lotsatia da, eta oso gustura egon gara berarekin. Hona hemen Landoni egin diogun elkarrizketa:

Zer moduz egon zara gure artean Mendatan?

Bi ikasturte egin ditut zuekin eta oso pozik egon naiz, gus-tura.

Zer nolako ordutegia izan duzu aurten?

Astean hiru egunetan etortzen nintzen eta astero ordu-bete egin dut ikasle talde bakoitzarekin. Beste irakasleek bezala, nire ordutegia izan dut: asteleheneko bigarren orduan 1B taldea, hirugarren orduan 4B taldea...

Hizkuntza laguntzaile aritzen zara, baina Donostian klase partikularrak ere eman dituzu, ezta?

Bai, hala da. Ingeleseko eskola partikularrak eman ditut Donostian.

Donostian geldituko zara oportetan?

lazko uda Donostian pasa nuen, ostatu batean lanean, baina aurten Texasen pasako ditut oporrak. Irailean itzuliko naiz Euskal Herrira, beste ikasturte bat bertan igaro-

tzeko asmoarekin.

Zer asmo duzu aurrera begira?

Helduekin probatu nahi nuen; hizkuntza eskola batean aritzeko aukera eskatu nuen eta lortu dut. Beraz, hurrengo ikasturtean Irungo Hizkuntza Eskolan jardungo dut hizkuntza laguntzaile bezala.

Debatik joateak pena ematen al dizu?

Bai, pena handia. Geldituko nintzateke bertan, baina ezin dut. Dena dela, itzuliko naiz zuei bisita egitera eta hemengo tortilla jatera.

Zure egonaldian ikasi dituzun gauzen artean zer da garrantzitsuena zuretzat?

Euskal kulturari buruz asko ikasi dut.

Eta zer da gehien botako duzuna faltan?

Ikasleak eta irakasleak.

BADATOZ UDAKO OPORRAK

Ikasturtea amaitzeaz dugula ikusita, udako oporrez aritu gara oraingoan. Hona hemen ikasleei egin dizkiegun galderak eta jasotako erantzunak:

- 1.- Baduzu gogorik uda iristeko?
- 2.- Kanpora joateko ohitura duzu?
- 3.- Nora?
- 4.- Udalekuetara joango al zara?
- 5.- Hizkuntzaren bat ikastera kanpora joango al zara?
- 6.- Nongo festetara joango zara?



INKESTA




Rebeca Arroyo:

- 1.- Bai, gogoz nago.
- 2.- Bai, kanpora joaten naiz.
- 3.- Benidorm eta Ingalaterrara.
- 4.- Ez.
- 5.- Ez.
- 6.- Debako eta Ingalaterrako festez gozatuko dut.



Aitor Urain:

- 1.- Bai, badut gogoa.
- 2.- Batzuetan joaten naiz.
- 3.- Benidormera.
- 4.- Ez, aurten ez naiz joango udalekuetara.
- 5.- Ez.
- 6.- Debako San Roke festetan ibiliko naiz.



Ander Rodriguez:

- 1.- Bai, gogo handia.
- 2.- Bai, ohitura daukat.
- 3.- Feriara, Extremadurara.
- 4.- Ez.
- 5.- Ez.
- 6.- San Roke festetan eta San Bartolomeetan ibiliko naiz.



Josu Valenciano:

- 1.- Bai, noski.
- 2.- Bai, kanpora joan ohi naiz.
- 3.- Falcesera.
- 4.- Ez.
- 5.- Ez.
- 6.- Kopraixetara joango naiz.




Ane Zulaika:

- 1.- Bai, gogoz nago.
- 2.- Ez.
- 3.- Lasturren ibiliko naiz.
- 4.- Ez.
- 5.- Ez.
- 6.- Kopraixetan eta San Roke festetan ibiliko naiz.



Itsaso Iciar

- 1.- Bai, noski.
- 2.- Bai, ohitura daukat.
- 3.- Vielhara joango naiz.
- 4.- Ez, ez naiz joango.
- 5.- Ez.
- 6.- Ahal dudan guztietara.




DenBord-pasaK

LOTU ZENBAKIAK



LABIRINTOA



SUDOKUA

8		4	6		7
				4	
	1			6	5
5	9		3	7	8
			7		
	4	8	2	1	3
	5	2			9
		1			
3			9	2	
					5

EGILEA: Sara Goikoetxea

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALDEA 2014-2015

- | | |
|-------------------|--------------------|
| Maite Iglesias | Itsaso Iciar |
| Leire Amesti | Naia Agirregabiria |
| Maialen Beristain | Paola Inurrieta |
| Sara Goikoetxea | Olatz Irueta |
| Janire Salegi | Aiora Zubizaray |

Koordinatzailea: Joseba Agirreoa

Bizi, sentitu, kontatu



Itziarko peajeen autopistatik irten eta sigi-saga jaitsi naiz, Debarantz, eskuin aldeko itsaso amaigabea lagun dudala. Bost egun izan dira, bost goiz, bost eguraldi, bost kolore, bost aldarte..., nola itsasoan, hala lehorrean. Autoa aparkatu ondoren, bosna kafesne hartu ditut, eguneko bat, liburutegiaren aurreko okindegian. Eta, ondoren, bosna saio burutu ditut, hiru talderekin, liburutegiaren haur-sailean.

Ez da lehenengo aldia. Badira zazpi bat urte helburu berarekin natorrena Debara, loreen hila-betean.

Gustuko dut txango hau. Gustuko dut sigi-saga bidea jaistea, itsaso ondoan dudala eta udaberria inguruan. Gustuko dut sortzea, kontatzea, idaztea, idataraztea... Eta, bai, gustuko dut umeekin aritzea ere. Zergatik gezurra esan?

Hala bada, gustu handiz hasi gara esaldi berarekin bost egunetako saio bakoitzean: adi bizi bazara, beti izango duzu zer kontatua. Eta horretantxe hasi gara, esanari zor: adi bizitzeko entrenamendu lanetan.

Aurrena, belarriak ireki ditugu, doinuaz bete dadin gure barrua.

Ondoren, begiak zabaldu ditugu, kolorez, formaz eta

itxuraz elika dadin gure burmuina.

Gero, airea usaindu dugu, usainen jatorria asmatzen hasteko gure irudimenean.

Jarraian, txokolate-ontza erdia dastatu dugu, zaporeak eta ehundurak bereizten ikasteko, txistuarekin zer gertatzen ari den ohartzen garen bitartean.

Segituan, elkarren ilea ukitu dugu, eskuek zer atzematen duten konturatzeko, aditz eta adjektibo egokiak bilatzen ditugun aldi berean.

Gauza gehiago ere egin dugu, nola ez, baina den-dena ezin da esan, intriga mantentzea ere behar beharrezkoa delako, bai artean bai eguneroko zereginetan.

Azkenik, bada, esperientzia guztiak paperera eraman eta elkarrekin partekatzen saiatu gara, niretzat idaztea horixe delako, aurrena bizi, ondoren sentitu

eta azkenik kontatu eta partekatu, bata bestearengandik ikasten ari garen une berberean.

Pozik aritu naiz, bada, aurten ere, Debako umeekin, Ostolaza liburutegian, ekina bide bihurturik eta umeen emoziotik gertu, bizitza nola kontatu ikasten dugun bitartean.

Mila esker.

Yolanda Arrieta

Zer: IDAZKETA SORTZAILEA, Niik Gura,
idazketa tailerra
Nor: Yolanda Arrieta Malaxetxebarria
(www.niikgura.com)
Non: OSTOLAZA udal liburutegia
Noiz: 2015eko maiatzaren 4tik 8ra
Norekin: LH-4ko ikasleekin

Argazkilaria
Ander Salegi
(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)
Email: andersalegi@gmail.com
Tlf: 685 703 843

Jarri zure publizitatea
Berrietan aldizkarian!
Zuhetza
943 191 383
berrietan@zuhetza.com

Pantalan berria Deban

Geoparkeko itsas-irteeretan parte hartzen duten bisitariak herrian ontziratzeke eta lehorreratzeko aukera izango dute

Duela bi urte gutxi gorabehera, Debako Udalak, Euskal Kostaldeko Geoparkeko Zuzendaritza Batzordearen babesarekin, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegitura Zuzendaritzari Deban pantalan berria jartzea eskatu zion, herrian promozio turistikoa sustapenerako bide berriak irekitzeko helburuarekin.

Debegesa eskualdeko garapen agentziak egin zuen txostena, eta bertan nabarmentzen zen Geoparkeko bisitak itsasontziz egiten dituzten bisitariak ontziratzeke eta lehorreratzeko puntu bat behar zuela Debak. Txosten berean, halaber, aipatzen zen pantalanak itsas-salbamendurako beharrei erantzuna eman ziezaikeela.

Udalaren eskaera aintzat hartuta, portuan pantalana ezarri du dagoeneko Eusko Jaurlaritzak. Portu Zuzendaritzak egin du diseinua eta ordainketa osoa -70.000 euroko kostua izan du (BEZ barne) pantalana, baranda eta atea jartzeak-, eta Amilibia enpresaren ardura izan da instalazioa.

Debegesak azaldu duenaren arabera, Deba ibaiak dituen berezitasunek baldintzatu dituzte pantalan berriaren ezaugarriak eta kokapena: "Ibaiak sakonera mugatua du eta barne-astintze handia du. Barne-astintze hori dela eta, pantalana desmuntatu beharra dago neguko hilabeteetan. Hori dela eta, kabrestante bat jarriko da operazio hau errazagoa izan dadin".

Pantalan berriari esker Debarentzat "aukera berriak" irekiko direla aurreikusita, urrats garrantzitsua dela uste dute Udalak eta Debegesak.

Euskal Kostaldeko Geoparkean, besteak beste, geoturismoa bultzatu nahi da, eta zehazki, bertako ondare natural,



kultural eta geologikoa deskubritzera, dibulgatzera eta disfrutatzen bideratuta dauden esperientzia, jarduera eta bisita gidatuak sustatu nahi dira. Zalantzarik gabe, flyscheko itsaslaba-rrak dira geoparkeko erakargarritasunik handiena; eta arrakasta handiena duten bisitak itsasontziz egiten direnak dira, Deba, Mutriku eta Zumaiako kostaldea deskubrituz.

2014an, adibidez, 6.500dik gora lagunek parte hartu zuten bisita gidatuetan. Joan-etorri handi horrek Geoparkea osatzen duten hiru herrietan eragin ekonomiko eta turistikoa garrantzitsua dauka, eta Debari pantalan berriak erraztuko dio aukera edo onura horiez gozatzea. Debegesak aipatu bezala, asmoa da itsasoz gero eta bisita gehiago erakartzea herrira.

Gazte-Multiabentura udalekuak antolatu ditu Debanaturak

"Uda honetan inoiz ahaztuko ez duzun abentura programa batean murgildu nahi? Zatoz Debako Gazte-Multiabentura udalekuetara, naturan kirola eginez gure txoko ezkutuetan ezagutzera!". Gonbidapen horrekin aurkeztu ditu Debanaturak uda honetarako antolatu dituen udalekuak. Uztailean eta abuztuan burutuko dira, arratsaldean (16:30-19:30), 9 eta 14 urteko gazteentzat.

Aire librean eta naturan, abentura eta kirol jarduerak ezberdinak hartzen dituzte beren baitan udalekuek. Programak astebeteko txandak izango ditu (uztailean bi eta abuztuan beste bi) eta ondoko jarduerak eskainiko ditu: raftinga baltsa neumati-koetan Debako itsasadarrean, bere natur aberastasuna eta historia barnetik ezagutzeko; ingurumen heziketarako jarduerak, senderrismoa eta irteeren bitartez herriko txoko ezberdinak ezagu-

tuz; espeleologia-txiki, uztai-jaurtiketa, orientazioa, eskalada, igerilekuetara irteerak (Elgoibarko BTT zentrora eta Mintxetara, Mutrikuara...).

"Gazteen garapen pertsonal eta soziala bultzatzea, ingurumenarekiko errespetuzko jokaerak sustatzea, berdintasuna, integrazioa, elkartasuna... bezalako balioen transmisioan eragitea, naturarekin kontaktuan gauzatutako kirolekin ondo pasatzea eta ikastea"... Helburu ezberdinak dituzte udalekuek eta bertan parte hartzeko deia egin du Debanaturak.

Euskaraz burutuko dira udalekuak eta 50 euro ordaindu behar dira izena eman ahal izateko. Informazio gehiagorako: 943191172/695793656 telefono zenbakiak, www.debanatura.net ataria edo debanatura@hotmail.com helbidera idatzita.

MULTIÓPTICAS UZURI


OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS Uzuri

ZURE

ENTZUMENA

ZAINTZEN



RPS: 183/12

Abian dago Tipi Tapa ekimena

Herritarrek ariketa fisikoa egitera animatu nahi dituen Tipi Tapa egitasmoa abian dago jadanik. Egunerokoan kirola egiteak dakartzan onurez jabetuta, proiektua adineko pertsonen zuzenduta dago bereziki. Udaleko Kirol Saila eta Gizarte Zerbitzuak, Osakidetza, Debako anbulategia, Arbil eta Nagusilan elkarteek elkarlanean sustatutako programa bat da, eta finean bi elementu nagusi hartzen ditu bere baitan: batetik, herritarrek oinez eta taldean egiteko lau ibilbide dituzte aukeran; eta, bestetik, zumardian bederatzi makina ezberdin jarri dituzte bertan ere ariketa fisikoak burutzeko.

Astean birritan egiten dira hitzorduak: astelehenetan, 11:00etan biltzen dira parte-hartzaileak zumardiko kioskoan, ibiltzera joateko; eta asteazkenetan, 11:00etan, leku berean elkartzen dira aparatuekin ariketak egiteko eta ibiltzera joateko. Andoni Urkiola Jarduera Fisikoan eta Kirolean lizentziatuak gidatzen ditu saioak. Bere laguntzarekin, herritarrek taldeka bilduta "modu atsegina batean" ibilbide ezberdinak egiten dituzte oinez -luzeraren arabera bereiztu dituzte lau aukera



Ander Salegi

horiek: 1.050 metro, 2.720 metro, 3.600 metro eta 4.650 metro-. Zumardiko makinak nola erabili behar diren ere monitoreak azaltzen du.

Ariketa fisikoa egitea garrantzitsua da osasunarentzat, eta "denon eskura dagoen ariketarik onena ibiltzea" dela nabarmendu dute arduradunek. Era berean, lagun artean egon eta lagun berriak egiteko ere Tipi Tapa lagungarri izan daitekeela uste dute. Informazio gehiagorako, jo Udaleko Kirol Sailera.

Lasturko bolariak, laugarren Gipuzkoako txapelketan

39 txirlorekin, San Migelgo Imanol Osorok irabazi du Gipuzkoako XLVI. Hiru Txirlo bolo txapelketa. Eibarko Asola-Berriko Ibai Diez gelditu da bigarren postuan, eta haren atzetik San Migelgo Unai Loiola, hirugarren. Emakumezkoetan, Laura Ribas (Asola-Berri) izan da finena, 14 txirlorekin, eta jubentzetan beste eibartar bat, Egoitz Blanco.

Lasturko bolariak laugarren gelditu dira taldekako

sailkapen orokorrean. Bolari nagusien artean, Juan Txurrukak (Lastur) eraman du errekonozimendua (26 txirlo) lehiaketa orokorrean eta berak lortu du herrietako bolari onenari ematen zaion izendapena ere. Floreagako bolatokia egin zen txapelketako azken jaurtialdia eta 55 bolarik hartu zuten parte. Hilaren 20an Lehendakari Saria izan zen jokoan Floreagan, Gipuzkoako 64 onenen artean.

Igeriketa, piraguismoa, xakea... Uda Kirola programaren baitan

Debako Udaleko Kirol Sailak Uda Kirola programa abiatu du aurten ere, piraguismoa, igeriketa, xakea, surfa eta Body Board egiteko eskaintza luzatuz. Izen-ematea ekainaren 8an hasi zen Debako haurrentzat eta hilaren 15ean gainontzeko interesa-

tuentzat. Izena emateko turismo bulegora jo behar da. Informazio gehiagorako: kontsultatu www.deba.eus ataria, deitu 943 19 24 52 telefono zenbakira edo idatzi turismoa@deba.net-era.


Zabalik dago Itxasmila Igeri-Zeharkaldirako izen-ematea

Uztailaren 4an (larunbata) jokatuko da VIII. Debako Itxasmila Igeri-Zeharkaldia, eta zabalik dago izena emateko epea -horretarako www.sailkapenak.com atarira jo behar da, eta hogeita euro ordaindu-. Hitzordua arratsaldean izango da. Lehenik igerilari gazteen txanda izango da -100 m-ko edo 500 m-ko ibilbidea

osatu beharko dute-. Eta helduen zeharkaldiak 17:00etan hasiko dira. Horiek ere bi proba izango dituzte aukeran, luzerari dagokionean: 1.850 metrokoa bata, eta 3.700 metrokoa bestea (bi itzuli burutuz). Informazio gehiagorako: www.sailkapenak.com edo Deba Xtrem kirol taldearekin harremanetan jarri.

TXINDURRI ITURRI
NEKAZALTURISMOA
SAGARDOTEGIA

943 199 389 / 699 684 490 • Mardari 12. 20829 ITZIAR-DEBA
www.txindurri.com



Agenda

Ekainak 23, asteartea

-17:00. Ur jolasak.

-22:00. **San Juan Sua**, Debako eta Itziarko plazetan.**Ekainak 24, asteazkena**-11:00. **San Juan eguneko erromeria**, Santa Katalinan.**Ekainak 26, ostirala**-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.**Ekainak 27, larunbata**-14:30. **Amaiak Bat** taldeak denboraldi amaierako bazkaria egingo du Aldats pilotalekuan. Aurrez, 11:00etan, batzarra egingo dute taldeko bazkideek Kultur Elkartean.**Ekainak 28, igandea**-22:00. **San Pedro bezpera**. Zahagi erretzea, plaza zaharrean.**Uztailak 3, ostirala**

-Giza proba, Gipuzkoako txapelketa Euskal Jolasen.

Uztailak 4, larunbata

-Merkatu Txikia, estalitako pasealekuan. Goizean.

-VIII. **Debako Itxasmila Igeri-Zeharkaldia**. Arratsaldean izango da, hondartzan. Informazio gehiagorako ikus 17. orrialdea.-20:00. **Eskusoinu kontzertua** klaustroan.-22:00. **Bandaren dantzaldia** Zesterokua plazan.**Uztailak 5, igandea**

-Deba Hiria Xake Lehiaketa.

Uztailak 7, asteartea-19:00. **"Hodei Magoa eta Tiritatxo"** haurrentzako ikuskizuna, Zuhatza Euskara Elkartek antolatuta. Zumardian.**Uztailak 10, ostirala**-21:30. **Bideak musika (Kuba/Euskal Herria)**, plaza zaharrean (Iturri ondoan).**Uztailak 14, asteartea**-19:00. **Haurrentzako jolasak**, Zuhatza elkarteko Kolore Ainitz Aisialdi Taldearen eskutik. Zumardian.**Uztailak 17, ostirala**-21:30. **Gilkitxaro Antzerki Taldea: "8 Begi"**, plaza zaharrean (Iturri ondoan).**Uztailak 19, ostirala**

-Debako mendi lasterketa.

Geoparkeko bisita gidatuak

Euskal Kostaldeko Geoparkeak bisita gidatu ezberdinak eskainiko ditu udan: Flysch beltza, Karstekoa zaporeak, itsasontziz joan-etorriak Deba-

Zumaia biotopo babestuan... Irteeren gaineko informazio gehiagorako: www.geoparkea.com edo Debako Turismo Bulegoa (943 19 24 52).

Kartel lehiaketak

-Zuhatza Euskara Elkartek abian du irailean ospatuko dugun aro berriko XVIII. Euskal Jairako kartel lehiaketa.

"Euskal Jaia 2015 DEBA" leloa izan beharko dute kartelek, euskara hutsean. Partaideek lan bakarra aurkez dezakete. Kartelen neurria gutxi gorabehera 50x65 zentimetrokoa izango da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du (teknika librea). **Kartelak ekainaren 30erako aurkeztu behar dira**, Zuhatzaren lokalean. Kartel irabazlea

herritarrek hautatuko dute, uztailearen 10eko iluntzean plaza zaharrean jarriko den erakusketan, eta lan saritua Zuhatzaren esku geratuko da.

-**San Rokeak 2015**: Kultura eta Jai Batzordeak herriko jaietarako kartel lehiaketa antolatu du. "Abuztuak 14tik 18ra 2015 San Roke Jaiak Deba" izenburua eraman beharko dute lanek. Uztailearen 15etik 20ra bitartekoa izango da lanak aurkezteko epea. Informazioa eta oinarriak: www.deba.eus.

Ikastaroak

-Debako **KZguneak** arratsaldeko ordutegia izango du ekainean eta goizekoa uztailean. Hainbat ikastaro eskainiko ditu: oinarriko interneta, IT Txartelak... Online formakuntza ere eskaintzen du. Informazio gehiagorako: www.kzgunea.net edo 943 02 36 29.

-Ekainaren 29tik uztailearen 22ra bitartean, **Udako Euskal Unibertsitateak** (UEU) 43. Udako Ikastaroak egingo ditu (euskaraz) Eibar, Baiona eta Iruñean. Izen-ematea zabalik dago, ikastaroak hasi baino astebe lehenago arte. Informazioa: www.ueu.eus.

XII. Juan San Martin Beka

-XII. Juan San Martin Bekaren deialdia egin du Eibarko Udalak, UEUrekin lankidetzan. Helburua euskarazko ikerketa lanak sustatzea da eta

aurtengo deialdian ETNOLOGIA izango da bekaren ikerketa-lanaren gaia. Bekaren zenbatekoa 9.000 eurokoa da. Oinarriak: www.eibar.eus-en.

Udako ordutegia liburutegian

-Ekainaren 24tik aurrera, Ostolaza Udala Liburutegiak udako ordutegia izango du.

*Liburutegi orokorra:

astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **ekainak 26, 27, 28.**
uztailak 6, 7, 8, 9.

Burgoa Zuazo: **ekainak 22, 23, 24, 25.**
uztailak 10, 11, 12, 20, 21, 22, 23.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: ekainak 27
uztailak 4

BURGOA ZUAZO: uztailak 11 eta 18

9:30 - 13:30



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com

kutxabank

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!
943 12 13 95
API 447



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

RAIKETAK S.L.

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazaatik

Sokagin Kalea, 2 behe, 20820 DEBA
943 029 186

MAZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!

